

# Gradu Amaierako Lana

## HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2015/2016 ikasturtea

### SOZIALIZAZIOAREN HASTAPENAK LEHENENGO HAURTZAROAN:

1-2 urteko haurren arteko harremanen behaketa jolas librean

**Egilea:** Olatz Zorriketa Bote

**Zuzendaria:** Elena Herrán Izagirre

Leioan, 2016ko ekainaren ....(e)(a)n

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA



EGILEAREN ONIRITZIA



## SOZIALIZAZIOAREN HASTAPENAK LEHENENGO HAURTZAROAN:

### 1-2 urteko haurren arteko harremanen behaketa jolas librean

Olatz Zorriketa Bote

UPV/EHU

1-2 urteko haurren arteko harremanak aztertzea izan da ikerketa lan honen helburu nagusia, horretarako, adin tarte horretako haurren behaketa egin da jolas librean. Behaketa Alonsotegiko Haurreskolan egin da, non Pikler-Lóczy eredu abiapuntutzat hartzen den. Esparru kontzeptualean, autore ezberdinek sozializazioaren hastapenaren inguruan dituzten iritziak azaldu dira. Gainera, behaketa lana jolas librean burutu denez, jolasak harremanetan duen garrantzia azpimarratu da, jolasa aberasteko halabeharrezkoak diren baldintzak azalduz. Esparru horren azken atalean, gatazkak sozializazioaren alde garrantzitsua direla kontuan hartuz, gatazka egoeretan hezitzaileen esku-hartzea nolakoa izan behar luken aztertu da. Hamar egunetan zehar egindako behaketetatik datuak lortu eta landuz gero, ondorio nagusi bat atera da: adin tarte horretan harreman sozialek plazer gehiago sortarazten dietela haurrei ondoeza baino, ikusitako gatazka kopuru urriagatik batez ere.

*Pikler-Lóczy pedagogia, sozializazioa, gatazkak, esku-hartzea, haur txikia*

El objetivo principal de este trabajo de investigación ha sido analizar las relaciones de niños de entre uno y dos años, para lo que se ha realizado una observación de niños de esa edad en el juego libre. La observación se ha realizado en la Haurreskola de Alonsotegi, donde siguen el modelo Pikler-Lóczy. En el ámbito conceptual se han explicado las opiniones de distintos autores sobre los fundamentos de la socialización. Además, como el trabajo de investigación se ha llevado a cabo durante el juego libre, se ha hecho hincapié sobre la importancia del juego en las relaciones sociales, explicando los requisitos necesarios para enriquecer el juego. Al final de este ámbito, teniendo en cuenta que los conflictos son parte fundamental de la socialización, se ha analizado como debería ser la participación de la educadora en situaciones de conflicto. Después de conseguir y trabajar los datos obtenidos en las observaciones realizadas durante diez días, se ha concluido en que en ese intervalo de edad las relaciones sociales generan a los niños más placer que displacer, teniendo en cuenta la escasa cantidad de conflictos observados.

*Pedagogía Pikler-Lóczy, socialización, conflictos, participación, el niño pequeño*

The main objective of this research work has been to analyse the one and two years old children relations. To do it, it have been observed children of this age at the free game. The observation has been realized in Alonsotegi's Haurreskola, where they follow Pikler-Lóczy model. In the conceptual field they have been explained the opinions of different authors about socialization foundations. In addition, as the research work has been carried out during the free game, it has been emphasized on the importance of the game in the social relations, explaining the necessary requirements to enrich the game. At the end of this field, keeping in mind that the conflicts are a fundamental part of the socialization, it has been analysed how it should be the participation of the educator in situations of conflict. After getting and working the information obtained in the observations during ten days, it has concluded that in this interval of age, because of the scant quantity of conflicts observed, the social relations generate more pleasure than displeasure to the children.

*Pikler-Lóczy pedagogy, socialization, conflicts, participation, toddler.*

## AURKIBIDEA

<b>Sarrera</b> .....	<b>4</b>
<b>1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: kontaktu sozialak jolas librean</b> .....	<b>6</b>
1.1. Sozializazio prozesuaren lehenengo urratsak .....	6
1.1.1. Lehen mailako sozializazioa .....	7
1.1.2. Bigarren mailako sozializazioa .....	9
1.2. Haur txikien arteko kontaktu sozialen inguruko ikerketak .....	9
1.3. Jolasa sozializazio tresna gisa .....	10
1.3.1. Jolas sozial motak.....	11
1.4. Gatazkak Pikler-Lóczy pedagogian .....	13
1.5. Helburuak eta hipotesiak .....	15
<b>2. Esparru enpirikoa: Sozializazio prozesua behatzen</b> .....	<b>16</b>
2.1. Ikerketaren baldintzak.....	16
2.2. Behaketa irizpideak.....	17
2.3. Erregistroa eta analisisa.....	18
2.3. Emaidzak .....	19
2.4. Ondorioak .....	24
2.5. Lanaren mugak eta etorkizunari begira lantzeko aukerak .....	26
<b>3. Erreferentziak</b> .....	<b>28</b>
 <b>ERANSKINAK</b>	
<b>I. ERANSKINA</b> .....	<b>29</b>
<b>II. ERANSKINA</b> .....	<b>30</b>
<b>III. ERANSKINA</b> .....	<b>32</b>

## Sarrera

Oso ohikoa da bi haur txiki batera egotean, haurrek elkarri begiratzea, ukitzea edota elkarrekin jolastea. Tankerako jarrerak behatzean, zer datorkigu burura edo zeri gogorarazten digu egoera horrek? Nahiz eta gizabanakoak mundu fisikoarekin dituen harremanak ez izan animalienak bezain sinpleak eta berehalakoak (Wallon, 1980), aipatzekoa da horrelako jarrerek primateen portaera gogorarazten dutela sarritan. “Izatez, egun ikerketa asko dago ume txiki eta primateen portaera elkartzen duena, eta primateen espezie gehienak, gizakia barne, sozialki antolatutako taldeetan bizitzeagatik dira bereziak” (Urkijo, 2015).

Gizarte-inguruneak, inguru naturalak baino garrantzi handiagoa hartzen du eta haurraren eragiteko nahitaezko baliabide bihurtzen da (Wallon, 1980). Hala eta guztiz ere, haurra heldugabea denean ez du inguruan eragiteko gaitasunik, ibiltzen eta gauzak oratzen ikasten duen arte, ondorioz, autonomoagoa bilakatzen den arte inguruko dependentzia dauka bere premia eta desioak asetzeko. Halaber, umearen bizitza gizarte-harremanen bidez zabaltzen da eta, ondorioz, animalia gehienek kasuan gertatzen ez den bezala, gizarte-harremanek mundu fisikoarekiko harremanek baino askoz garrantzi handiagoa hartzen dute (Wallon, 1985).

Gizarte garapena bi tankeratako faktorek baldintzatzen dute: fisiologikoak eta gizakizkoak (Wallon, 1979). Pertsonak gorputz-ezaugarri, ezaugarri intelektual eta ezaugarri afektibo ezberdinak dituzten bezala, gizarte-arloan eta sozializazio-prozesuan ere, pertsona bakoitzak bere ezaugarri bereziak ditu. Alde batetik, gizaki bakoitzak fisikoki izaera berezia dauka. Bestetik, aldagai sozialek ere eragina daukate norbanakoaren izaeran, pertsona bakoitza kultura-, ekonomia- eta familia-ingurune jakin batean garatzen delako. Guzti horrek pertsona bakoitza ezberdina izatea eragiten du, baina ez dugu ahaztu behar bi faktoreen arteko elkarrekintza eta elkarreragina. Beraz, gizakia izaki soziala dela esan dezakegu, baina izaki soziala izatea zerk baldintzatzen du gehien, aldagai fisikoek ala sozialek? Galdera horri erantzuteko, adibidetzat beste gizakien laguntzarik gabe oihanean hezitako haurrak hartu ahal ditugu. *Ume basati* horien urritasun nabarmenena, gizakiaren eta sozializazioaren berariazko ezaugarria den hizkuntzaren falta zen. Hitz egin beharrean, inguruko animalien bezalako oihuak egiten zituzten, baina hitz egiteko gaitasun ezaren arrazoia ez zen genetikoa. Bakardadean haztea eta beste gizaki bat hitz egiten inoiz ez entzuteak eragin zuen mintzaira falta. Adibide

honek argi erakusten duenez, gizakia izaki soziala da eta, bere gaitasunak eta ahalmenak garatzeko, beste gizakiak behar ditu (Nik Truffaut, 1969).

Beraz, gizarte-garapen egokia sustatzeko, umeek bere inguruko pertsona garrantzitsuenekin kalitatezko harremanak izan ditzaten bultzatu behar da; baina zer egin daiteke hori lortzeko? Haurrenganako harreman eta zaintza pribilegiatuak bultzatzen dituen pedagogia bat Pikler-Lóczy da, hain zuzen ere, 0-3 adin tartea aintzat hartzen duen pedagogia bakarra. Eredu honetan ardatz nagusienak kalitatezko zaintzak eskaintzea eta haurren jarduera autonomia errespetatzea dira (Herrán, 2014). Izan ere, bi ardatz horietan oinarritzen dira Lóczyko lau printzipio nagusiak (David eta Appell, 2010). Herránek (2014) honela laburbiltzen ditu:

1. Umetxoaren eta ume txikiaren jarduera autonomo proaktiboa oso baliotsua da.
2. Helduaren eta umearen arteko harremanen egonkortasunak eta, batez ere, ume bakoitzak beraz arduratuko den helduarekin duen lehentasunezko harremanak oinarri emozional sendoa eskaintzen diote.
3. Garapen-mailaren arabera, umeak etengabeko laguntza behar du, bere buruarekiko eta inguruarekiko kontzientzia —pixkanaka-pixkanaka— hartzen joan dadin.
4. Aipaturiko printzipioak ezartzearen ondorioz, umeak osasun-egoera fisiko ona izaten du eta, aldi berean, horren jatorria ere badela jo daiteke.

Graduan emandako lau urteetan zehar, Pikler-Lóczy pedagogiaren eta lehenengo haurtzaroaren inguruan izan dudana interesa dela eta erabaki dut adin tarte eta hezkuntza eredu horretan oinarritutako ikerketa lan bat aurrera eramatea; aintzat hartuz graduan lehenengo haurtzaroaren inguruan eskaini dizkiguten baliabide urriak.

Hurrengo orrialdeetan Pikler-Lóczy pedagogia abiapuntutzat hartzen duen Haurreskola batetan, Alonsotegin, egindako sozializazioaren inguruko behaketa lana aurkitzen da, non 1-2 urteko haurren arteko harremanak behatu diren. Horretarako, alde aurretik, sozializazio-prozesuari buruzko zenbait aspektu azpimarratu dira, autore ezberdinen lanak aztertuz. Ondoren, haur eskolan bertan hartutako irudien lanketaren berri urratsez urrats ematen da, ondorio oso interesgarri batzuekin amaituz.

## **1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: kontaktu sozialak jolas librean**

Hurrek jolasteko beharra daukate eta beraien ingurua behatzeko duten interesa nekaezina da. Umetxoak plazerra sentitzen du ukitzen, sentitzen, lauskitzen, objektuak hartu eta jausten uzten. (Kálló eta Balog, 2013).

Haur txikiek inguruko objektu zein jostailuak arakatzeko eta horiekin jolasteko berezko gaitasuna dute, ondorioz, umetxo bat jolas ezberdinez hornitutako gela batean egonez gero, betiere distantzia egoki batera eta ondo aurkeztuak, jolasten jarriko da. Baina, zer gertatzen da gela batean haur bat baino gehiago elkarrekin dagoenean? Noiztik hasten dira haurrak elkarrekin jolasten? Adinaren arabera euren arteko erreakzioak bereizten doaz?

### **1.1. Sozializazio prozesuaren lehenengo urratsak**

Haurra bizi den gizartearen partaide aktibo eta sortzaile izatera bideratzen du sozializazio prozesuak, baina noiz esan dezakegu prozesu hori hasten dela? Autore ezberdinek kontrako iritziak dituzte galdera horren inguruan. Alde batetik, Piagetek, haurra 6-7 urterekin sozializatzen hasten dela baieztatzen du, eta adin horretara heldu baino lehen, haurra egoera pasibo batean bizi dela, non harremanek erresonantzia psikiko urria duten. Bestetik, Wallonek (1980) hurrengo hau dio sozializazioaren inguruan:

No digo, aunque lo crea, que haya una psicología del niño desde el período fetal, pero ya en ese momento encontramos un tipo de relaciones que va a prolongarse más allá del nacimiento, lo que llamaré la simbiosis entre el niño y su madre. (Wallon, 1980, 185 or.)

Azken horrekin ikusten dugu nola Wallonek (1980), Piagetek ez bezala, baieztatzen duen haurraren sozializazio prozesua fetu egoeran bertan hasten dela. Haurra amaren umetokian dagoenean, amarengandik lortzen ditu elikagaiak eta garapen somatikorako behar dituen hormonak. Umea jaio bezain laster, oraindik ez da gai bere premia eta desioak (elikatzea, posturaz aldatzea..) autonomoki asetzeko, ondorioz, bere inguruko dependentzia izaten jarraitzen du. Jaioberriaren lehenengo etapa horretan, lehenengo hiru hilabeteak, haren erreakzio guztiak bere amarengandik beharrezkoak dituen premiak lortzean oinarritzen dira eta, halabeharrez, une horretako gaitasun psikiko guztiak norabide horretara bideratuko ditu (Wallon, 1980).

Izan ere, haurarentzat erabilgarriak diren lehenengo keinuak ez dira inguruan dauzkan objektuak lortzeko keinuak izango, baizik eta bere inguruko pertsoneri zuzenduak;

Wallonek (1980) *adierazpen keinuak* deritzonak. Haurrak hiru hilabete dituenean, bere inguruko pertsonekin komunikatzen hasten da, batez ere amarekin, eta ez soilik oihu egiten besteei bere behar fisiologikoak asetzeko; etapa horretan irribarreak eta poztasun keinuak agertzen dira, lotura guztiz afektiboa adierazten dutenak haurraren eta inguruko pertsonen artean. Hasieran, haurrak amarekiko lotura handia dauka, baina bere garapen sozialak oso azkar egiten du aurrera, batez ere umea bere kabuz mugitzeko eta ahoz komunikatzeko gaitasuna lortzen duenean (Wallon, 1980).

Con el segundo trimestre llega el periodo en que las reacciones frente a otro van a alcanzar su máximo de frecuencia. Del 50% en el 6º mes, la simple fijación sin gestos de las personas desciende al 25% en el 7º mes, en tanto que los gestos hacia el partenaire ascienden al 41%, y los gestos sobre sí mismo al 28%. Entre el 7º y el 12º mes los movimientos dirigidos hacia el otro son cuatro veces más frecuentes que en el primer semestre y sobrepasan en un tercio a la frecuencia que tendrán en el segundo año. (Wallon, 1979)

Soziabilitatearen ikuspuntutik, oso etapa garrantzitsua da hori. Sei hilabeterekin haurrak ezezagunekiko duen beldurra desagertzen da eta ondorioz, haurrari hurbileko edozein pertsonekin erlazionatzeko aukerak zabaltzen zaizkio. *“Los ojos buscan los ojos, las miradas cambiadas son inteligentes. Finalmente, la sonrisa, despertada en un primer momento por la voz humana, termina por afirmarse como un reflejo exclusivo de sociabilidad”* (Wallon, 1979). Hasieran inguruko hitzek eta ahotsak eragiten du haur txikiaren irribarrea, baina gerora, irribarre hori heldu edo beste haur baten begiraden elkartrukeak eragiten du; izan ere, haurraren irribarrea ez da inoiz ematen giza kontakturik gabeko egoeretan.

Bestalde, sozializazioan ematen diren urratsekin jarraituz, Berger eta Luckmannen (1983) ustez, sozializazio prozesua mailaka antolatzen da, lehen eta bigarren mailakoa, horietako bakoitza inguru ezberdin batetan eman ohi delarik.

### **1.1.1. Lehen mailako sozializazioa**

Lehen mailako sozializazioa familiaren baitan garatzen da. Bertan, haurrak zenbait ohitura eta arau integratzen ditu eta aldi berean, lehenengo sozializazio horren bidez, haurra bizitzan zehar aurkituko dituen komunitateetan – eskola, adibidez - lekua hartzeko prestatzen hasten da. Hori dela eta, esan dezakegu lehen sozializazio hau garrantzitsuena dela norbanakoarentzat, hurrengo sozializazio mailetarako oinarria izango delako.

Hasiera batean, familia mailan, umeak integratzen dituen arau eta ohiturak, haurrekin lotura afektiboa duten helduek jarraitzen dituzten berdinak dira. Beraz, arauen lehenengo integratze hori emozionalki motibatutako identifikazioan oinarritzen da (Tardos eta Vasseur-Paumelle, 1991).

Lehenengo sozializazioa, beraz, karga emozional handiko egoeretan ematen da arrazoi ugari daude pentsatzeko, familia-kideenganako atxikimendu emozionalik gabe, ikaste prozesua oso zaila, edo ezinezkoa, izango litzatekela. Haurra, sozializazio horretan parte-hartzen dutenekin emozionalki identifikatzen da eta horri esker, pixkanaka-pixkanaka bere buruarekin identifikatzeko eta baita identitate onargarri eta koherente bat bereganatzeko gai bihurtzen da (Berger eta Luckmann, 1983).

Gogoan izan behar dugu testuinguru horretan haurrak bere inguruan ikusten duena imitatzen duela, nahiz eta berak ere inguru horretan eragina duen. Sozializazio hori, beraz, elkarrekiko interakzioetan oinarritzen da eta mugak partaideen artean negoziatzen dira. Gurasoek zerbait egin, eskatu edo proposatzen diotenean haurrari, igurikapena bete ezean, gurasoek porrot propio bezala hartzen dute. Hala ere, ezinbestekoa da jakitea haurrak segituan ez obeditzea ez dela porrotaren seinale, baizik eta elkartruckerako baldintzak ez direla bete, esate baterako denbora gutxi izan duela egin behar duena ulertu eta prozesatzeko. Elkartrukea sozializazioaren parte integratzailea da, izan ere, talde guztietako partaideek elkarri eragin eta onartzen diote. Hori dela eta, familia elkartruckerako eta negoziatorako eremu pribilegiatua izan beharko luke, haurrak etxeko arauak negoziatzeko eta eztabaidatzeko aukera izanez, haurrak erabakietan eragina duela sentitzeko helburuarekin (Tardos eta Vasseur-Paumelle, 1991).

Badakigu noiz hasten den lehenengo sozializazioa, baina ba al dauka bukaerarik ala bitzita osoan zehar jarraitzen du? Lehen mailako sozializazioa bukatzen da *bestea orokortuaren* kontzeptua gizabanakoaren kontzientzian finkatzen denean. Momentu horretatik aurrera, haurra gizarte partaide bihurtzera pasatzen da; hala ere, sozializazio prozesua ez denez inoiz guztiz osatzen, amaierarik ez duela esan dezakegu. Hori dela eta, halabeharrezkoa da aztertzea ea nola gauzatzen diren hurrengo sozializazio mailak haurraren bizitzan zehar, batik bat, bigarren mailako sozializazioa (Berger eta Luckman, 1983).



### **1.1.2. Bigarren mailako sozializazioa**

Eskola, instituzio, zein beste talde sozialetan parte hartzen hasten denean, haurrak bigarren mailako sozializazioari hasiera ematen dio. Maila horretan, arauen onarpena ez da harreman afektibo pertsonaletan oinarritzen, eta era berean, arauak askoz zorrotzagoak bihurtzen dira, ez direlako lehenengo mailako sozializazioan bezain indibidualizatuak. Haurrak etxean bizitako esperientziaz baliatuz, non arau eta mugak eztabaidatuak eta negoziatuak izan diren, arau kolektiboak onartzeko gaitasun handiagoa izan ohi du. Hori dela, eta argi dago oso garrantzitsua dela familiaren baitan, partaideek haurrari aukera ematea arauak eztabaidatzeko, modu horretan, bigarren sozializaziorako prestatuago egongo da. Hala ere, hasieran, hurrei zaila egiten zaie arau kolektiboak ulertzea (Tardos eta Vasseur-Paumelle, 1991).

Egun haurrak gero eta gazteago eskolatzen dituztenez, haurrak eskolan bigarren sozializazioari ekiten diote oraindik lehenengo mailako sozializazioarekin bukatu ez dutenean. Ondorioz, eskola sasi-masiko sozializazioan agente garrantzitsua bihurtzen da, non familiaren zeregin asko orain eskolako hezitzaileari dagozkion.

### **1.2. Haur txikien arteko kontaktu sozialen inguruko ikerketak**

Haur txikien sozializazio prozesua aztertzen duten luzerako zenbait ikerketa aurkitzen ditugu gaur egun; hala nola, Bühler (1927), Sandler (1950) eta Lichtenbergerrek (1956) jaioberri eta haur txikien arteko kontaktu sozialak aztertu zituzten. Bestetik, Provence eta Lipton (1962) eta Meierhofer eta Kellerrek (1966) instituzio suitzar eta amerikarretan hezitako hurrekin izandako esperientziak xeheki deskribatu zituzten.

Haurren sozializazioaren inguruan dauden ikerketa gehienak hain egoera zehatzetan egin direnez, lortutako emaitzak egoera zehatz horretarako baino ez dira erabilgarriak. Nahiz eta interes praktikoa zein teorikoa egon gai honen inguruan, elkarrekin hezitako haurtxoen arteko harremanak gutxitan izan dira ikerketen helburu. Maria Vinczek (1971) aipatzen du horren arrazoia ikerketa horiek dakartzaten zailtasun metodologikoak izan daitezkeela. Ondorioz, zenbait baldintza deskribatu zituen horrelako ikerketa bat egiterako orduan kontuan hartzeko (Vincze, 1971):

1. Hurrek garapen emozional egokia izan behar dute, horretarako, ezinbestekoa da haur txikiek hezitzailearekin harreman estua eta maitekorra izatea. Haurrak ez dira euren

parekoekin erlazionatuko hezitzailearekiko duten harremanak ez badie segurtasuna bermatzen. Azken hori frogatzen duen adibide argi bat Lipton eta Provencek (1962) instituzio amerikar batetan deskribatutako egoera da, non hezitzaileen jarrera hurrekiko hotza eta urruna zen. Egoera horretan, hurrek ez zutenez harreman esturik helduekin, haurren arteko kontaktu sozialak oso urriak ziren ere bai.

2. Haurrak momentu oro sehaskatan pasatzen badute eta barroteetatik soilik ikusten badute elkar, zaila da euren artean harremanak egotea. Hori dela eta, haurrak esnatuta dauden uneetan parke edo gela handietan egon beharko lukete, elkarrekin jolasteko aukera izanik.

3. Luzetarako ikerketak gauzatu ahal izateko, taldearen egitura mantendu behar da; nahiz eta lekuz aldatu, taldea berdina izaten jarraitu behar du.

4. Parekoen arteko erlazioak aztertzeke, eta ez hezitzailearekiko harremanak aztertzeke, ezinbestekoa da hezitzaileak distantzia mantentzea hurrekiko. Hala nola, jolas librean hezitzaileak ez ditu haurrak gidatu behar, ezta gatazkaren bat suertatzen denean ere ez; hurrei laga behar zaie haien kabuz gatazkari irtenbidea ematen hezitzailearen esku-hartze zuzenik gabe, ahal izanez gero.

### **1.3. Jolasa sozializazio tresna gisa**

“Un ser humano juega solamente cuando es un ser humano en el pleno sentido de la palabra y es plenamente un ser humano cuando juega” (Schiller, 1795)

Jolasa era espontaneoan hasten da haurra jaio eta gutxira, izan ere, autore batzuek baieztatzen dute jolasa haurra jaioberriaren erreflexu primariotatik askatzen denean hasten dela. Orokorrean, gehienak ados daude hurrengo ideiarekin: jolasaren garapen egokia zenbait faktoreren menpe dago, hain zuzen ere, helduaren estimulu eta onartze jarraiaren, jolas eta material egokiaren eta behar beste espazio izatearen menpe (Pugmire-Stoy, M. C., 1996).

Tardósen (2014) ustez, jolasak funtzio ugari betetzen ditu haur txikien bizitzan eta hurrek mundua ezagutzeko duten oso tresna garrantzitsua da. Jolasak norbanakoaren ezagutzak eta esperientziak aberasten ditu, objektuen propietateak ezagutuz, irudimena

garatuz, helduen jarduerak imitatuz, barruko tentsioak gaindituz... Baina jolasa aberasgarri suertatzeko, halabeharrezko baldintza batzuk bete beharko lituzke:

1. Segurtasuna: Haurrak jolasean erabat murgiltzeko, ezinbestekoa da seguru sentitzea eta horretan, hezitzaileak paper garrantzitsua betetzen du. Umeen segurtasun fisikoa eta osasuna bermatzeko, hezitzaileak momentu oro behatu behar ditu; gainera, haurrek jakin behar dute hezitzailea bertan dagoela beraien burua babesteko eta zaintzeko.

2. Askatasunez mugitzeko aukera: Jolasteko espazioa zeharo baldintzatuta dago gelaren tamaina, ume kopuru eta altzairuen antolamenduarekin, hala ere, gomendatzen da oraindik lekualdatzen ez den haur bakoitzeko metro karratu bat egotea, askatasuna izan dezaten mugitzeko ingurukoak oztopatu gabe. Haurrak esna daudenean, jolasteko espazio batetan egon beharko lukete eta ez ohean; horrela izanda, mugitzeko aukera murrizten zaielako. Espazioa ahalik eta hobekien aprobetxatzeko, hezitzaileak haurrak lagundu ditzake denak leku berdinean pilatuta jar ez daitezen. Hala ere, azken horrek ez du esan nahi haurrak gela osoan zehar sakabanatu behar direnik, elkarren ondoan edo elkarrekin gustura jolasten baldin badaude. Baina jolasa gatazka bihurtzeko arriskua badago haur asko elkarturik edo egoteagatik, hezitzaileak lekuz aldatu ditzake.

3. Behar beste denbora: Eguneroko jarduerak, jatorduak, pixoihal aldaketak, eta abarrerako ordutegia ondo antolatuta egonez gero, posiblea da haurrak egunaren beste tarte guztiak jolasten ematea etenik gabe.

4. Material egokiak: Hala beharrezkoa da jolasteko eremua era egokienean antolatuta egotea, haurrek ez baitute jolasteko interesik adierazten materialak desordenatuta, pilatuta edo apurtuta daudenean. Horregatik, komenigarria da hezitzaileak aldiro gelatik dauden jostailuak ordenatzen joatea. Horrez gain, oraindik desplazatzen ez diren hurrekin, materialak distantzia egoki batera jarri behar dira haurra horiek oratzera hel dadin; eta lekualdatzen hasi diren hurrei dagokionez, ez da beharrezkoa materialak behin eta berriro berriztea, baizik eta material horiek distantziara kokatzea, leku ezberdinetan.

### **1.3.1. Jolas sozial motak**

1932an, Mildred Partenek jolasak kategoriatan ezberdinetan antolatu zituen bere ikasleak ziren haurrak behatuz. Hain zuzen ere, kategoriatan horiek haurrek bere parekoekin sozializatzeko duten gaitasunean oinarritzen dira. Fernández Moyak (2014) eta Pugmire-

Stoyek (1996) adierazten dutenez, bost jolas motak aurkitu daitezke adinaren arabera (1.go taula).

1. Taula: Haur adinen arabeko jolas motak, Fernandez Moyaren arabera (2014)

ADINA	JOLAS MOTAK				
<b>0-2 urte</b>	Bakarkakoa	Behatzailea			
<b>2-4 urte</b>	Bakarkakoa	Behatzailea	Paraleloa		
<b>4-6 urte</b>	Bakarkakoa	Behatzailea	Paraleloa	Asoziatiboa	
<b>6 urtetik gora</b>	Bakarkakoa	Behatzailea	Paraleloa	Asoziatiboa	Kooperatiboa

Autore honen iritziz, adin bakoitzaren jolasaren ezaugarriak ondorengoak lirateke:

- **Bakarkako jolasa:** Haurrak bakarrik jolasten du objektuekin. Ez du inorengatik ezta jakinminik ere ez.
- **Jolas behatzailea:** Haurrak bere kabuz jolasten duela, besteen jolasa behatzen du baina ez du era aktiboan besteen jolasean parte hartzen. Batzuetan haurrak ahozko komentarioren bat bota dezake, baina jolasean parte hartzeko edota taldean integratzeko interesik adierazi gabe. Horrelako egoeretan posiblea da haurra jolasean parte hartzeko edo bere kabuz antzeko jarduerak aurrera eramateko maila mentalean prestatzen egotea.
- **Jolas paraleloa:** Haurrak beste haur baten ondoan jolasten du, hau da, espazio fisikoa konpartitzen dute biek, normalean metro bat baino gutxiagoko distantzian, baina era independientean jolastuz. Imitazioari esker, jarduera berdina gauzatzen edo material berdina erabiltzen egon arren, elkarren artean ez dago interakzio zuzenik.
- **Jolas asoziatiboa:** Jolas asoziatiboa izan daiteke haurrak bizitzen duen lehenengo jolas soziala, jolas honetan lehenengo pausuak ematen direlako taldeko kideen artean helburu zehatz batera heltzeko. Bi edo haur gehiago elkarrekin jolasten dute, elkarrekintza burutuz, baina jolasa ez dago partaideen

parte-hartze jarraituaren menpe eta jolasaren barnean ez dago zereginen banaketarik, ezta antolaketa handirik ere ez.

- **Jolas kooperatiboa:** Ikuspuntu sozialetik begiratuta, jolasik konplexuena da. Haurra besteekin jolasten du baina era antolatuago batean eta paperak eta rolak onartzen zein esleitzen dituzte, elkarrekin benetako interakzioa sortzen delarik. Jolas kooperatiboan, haur guztiek euren ahaleginak elkartzen dituzte helburu berdin batera heltzeko.

Jolasen bilakaera oso agerikoa baldin bada, badago aldez aurretiaz jolasteko moduak mantentzeko joera. Horrela, nahiz eta nagusiagoak izan, aldez aurretik menderatutako jolas moduak aurkituko ditugu haurtzaroan zehar, 1.go taulan ikusten den bezala.

#### **1.4. Gatazkak Pikler-Lóczy pedagogian**

“Gatazkak sozializazio-prozesuaren berezko elementuak dira, bizikidetzarako ezinbestekoak diren arauak barneratzeko prozesuaren parte direlako, baldin eta elkarrekiko harremana jokoan jartzen ez bada” (Herrán, 2014).

Gorago aipatu den bezala, nahiz eta jolaserako egoera idealak suertatu: segurtasuna bermatu, eta espazio, denbora eta materialaren antolaketa egokia eskaini, gatazkak sarritan ematen dira haur txikien artean. Jakin badakigu gatazkak sozializaziorako alde garrantzitsuenetako bat direla, baina zer egin dezake hezitzaileak haurrek jarrera sozialeko arauak barneratzeko eta parekoen artean ematen diren gatazkak bideratzeko?

Haurrek jolasten duten uneetan, beraien segurtasun fisikoa eta osasuna bermatzen duten zenbait arau ezagutu eta errespetatu behar dituzte. Gainera, espazio berdinean haur batzuk elkarrekin jolastean, halabeharrezkoa da gatazkak egotea; ondorioz, taldean moldatzeko ere, haurrek hainbat jarrera ikasi behar dituzte taldean ahalik eta lasaien bizi ahal izateko (Tardós, 2014).

Tardósek (2014) dioten bezala, umeak sarritan kentzen dizkiote elkarri objektuak eskuetatik, adin txikiko haurrek objektuaren bat nahi dutenean ez direlako itxaroteko ezta bere nahiei uko egiteko gai. Jarrera horrek gatazkak sortzen ditu maiz, baina ez da haurren arteko gatazken sorburu bakarra. Adin honetan, arauen ezjakintasunak liskar ugari eragin ditzake ere bai, sarritan haurrek ez dakitelako gauzak nola eskatu edo nola erantzun behar

duen beste batek objektu bat eskuetatik kentzen dienean. Kálló eta Balog-ek (2013) azpimarratzen dute, nola, nahiz eta haurrek behar beste material izan beraien interesak asetzeko, oso ohikoa dela elkarri jolasak kentzea. Hori gertatzean, objektua kendu dioten haurrak beste bat hartzen badu ez da gatazkarik suertatzen, baina haurra objektuarekiko oso atxikitua baldin badago haserretu daiteke edo bere eskubidea edo nahia plazaratu.

Gauza jakina da, hezitzailea haur guztiak behatzen egon behar duela momentu oro, beraz, argi dago gatazka bat gertatzen denean hezitzaileak horren berri izango duela. Izan ere, materialak ber ordenatuz edo eskainiz saihestu daitezke. Baina galdera zera da, noraino utzi behar zaie haurrei autonomoki gatazka horiek konpontzen eta zein uneetan hartu beharko luke parte hezitzaileak gatazka horretan lagungarri gertatzeko?

Sarritan gatazketan esku-hartzea halabeharrezkoa da, hala ere, gatazka minimoa gertatzean berehalako esku-hartzea ere ez da egokiena. Hezitzailearen aldetik esku-hartzeak azkarrak direnean, haurrak ezin du egoera gatazkatsua ulertu eta behin errepikatuz gero, horretara ohitu egiten da eta arazoren bat suertatzen den oro hezitzailearen begiradaren zain geratzen da. Ondorioz, haurrak ez duenez bere burua defendatzeko beharra sentitzen, ezta bestearen ikuspegitik egoeraz jabetzeko aukerarik, ez du elkarrekin bizitzen ikasiko. Gatazkaren bat hasten denean, lehendabizi denbora eskaini behar zaie haurrei, arazoari irtenbidea aurkitzen saia daitezten elkarren artean, eta soilik esku hartu behar da indarkeriazko jarrera indartsuak daudenean edo behin baino gehiagotan egoera berdina errepikatzen bada. Gainera, oso garrantzitsua da esku hartzeko era, hezitzaileak ez duelako arazoa konpondu behar, baizik eta haurrei lagundu behar die haiek gatazkari irtenbidea aurkitzeko (Tardós, 2014).

Argi dago gatazka egoerak ez direla errazak hezitzailearentzat. Araua oso argi eduki behar da: haur batek objektu bat duen bitartean berari dagokio eta besteak itxaron behar du objektu horrekin amaitu arte. Horretarako, aldiro gogorarazi behar zaie. Haurarentzat ez da erraza nahi duen objektu bati uko egitea, ezta jabe den jostailu bat galtzea, ondorioz, komenigarria litzateke hezitzaileak haurrari azaltzea non aurki ditzake horrelako beste objektu bat edo behin besteak amaituz gero eskuragarri edukiko duela. Ahoz esatearekin nahikoa ez baldin bada, haurraren gana hurbilduko da objektu hori non dagoen adierazteko edo berak objektua hurbiltzeko. Hala ere, maiz gertatzen da bi haurrek ez dutela beraien nahiei amore ematen eta biek negarrez bukatzen dute. Horrelako kasuetan, hezitzaileak argi izan behar du bi haurrek kontsolatzea eta ulertzea behar dutela eta bigarren haurrari

esan behar dio, nahiz eta objektu batekin jolastu nahi duen, ezin diola beste bati eskuetatik kendu (Kálló eta Balog, 2013).

Azkenik, aipatzekoa da hezitzaileek bi arau nagusi izan behar dituztela jarrera sozial eta arauen barnerapen prozesuan. Batetik, argi izan behar dute arau guztiek ez dutela garrantzi bera, hots, arauen hierarkia bat dago arauen artean ere. Lózcyn arau gorriak eta arrosak, eta jokabide urdinak bereizten dira. Gorriak badute umearen ongizate eta seguritate fisikoarekin zerikusia eta ondorioz ezin dira ez negoziatu ezta huts egin. Arrosak, aldiz, badaukate zerikusia objektuen ordenarekin, antolaketarekin eta ondorioz negoziatia daitezke. Jokabide urdinak, ez dira arauak bezala iradokitzen, hots, era leunago batetan transmititzen dira eta gurasoen edo hezitzaileen gustuetan eta bizimoduan dute jatorria (Tardos eta Vasseur-Paumelle, 1991).

Bestetik, garrantzitsua da haurrei laguntzea *igurikapen ez zuzenen* (Tardos, 2014) bitartez eta ez soilik aginduak emanez eta hasieratik “EZETZ” esanez. Beraz, hezitzaileak jarraitu beharreko pausuak haurrek arauak errespetatzen ikas dezan ondorengoak liriateke. Lehenengoz, urrunetik hitz egin behar zaio haurraren arreta lortzeko. Horren ostean, haurraren hitz egiten hurbildu, ezin egin duena azalduz, eta azkenik, keinu bat egin haurrari egin behar duena adieraziz (Tardós, 2010).

### **1.5. Helburuak eta hipotesiak**

Ikerketa lan honen helburu nagusia 1-2 urteko gelako haurren jarduera behatzea izan da beste haurrekin erlazionatzen diren uneetan. Hain zuzen ere, helburua jolas librean ematen diren kontaktu sozialen berezitasunak aztertzea izan da. Hurrengo hauek dira ikerketa lan honen helburu zehatzak:

1. Adinaren arabeko erlazioak aztertzea eta konparatzea.
2. Gatazken maiztasuna behatzea eta horien sorburua ezagutzeko saiakerak egitea.
3. Jolas sozial motak ezberdintzea.

Beraz, ikerketa honetan, haurrei eskaintzen zaien materialaren eta espazioaren antolaketaren arabera, euren arteko harremanak ezberdinak izatea espero da; material bakoitzak jolas sozial zehatz batzuk bideratuko dituelarik eta ez beste batzuk. Honetaz gain, adinaren arabera, haurren arteko erlazioa ezberdina izatea espero da: nagusien

jarrera harremanetan aktiboagoa izango da eta txikiena, aldiz, pasiboagoa. Bestalde, hezitzaileak hurrekin distantzia mantentzen duen egoeretan, haurren arteko kontaktu sozialak ugariagoak izatea espero da, hezitzailea hurrengandik gertu dagoenekin konparatuta, eta azkenik, harreman uneetan momentu atseginak gatazka uneak baino askoz ugariagoak izatea eta gatazken arrazoi nagusia bata besteari eskuan duen materiala kentzea izatea espero da.

## **2. Esparru enpirikoa: Sozializazio prozesua behatzen**

### **2.1. Ikerketaren baldintzak**

Ikerketa lan hau aurrera eramateko Alonsotegiko Haurreskolara zuzendu naiz behaketa burutzeko asmotan. Informazio trukaketa, baimenak eta abar lortuz gero, lagina hartu da 2016ko urtarrilean zehar. Ikerketa lan honen helburua haurren arteko kontaktu sozialak aztertzea denez, denboran zehar behaketa egitea erabaki da (1.ERANSKINA). Kasurako, hamar grabaketa saio egin dira haurrak jolas librean dauden uneetan. Lagina jolas librean hartzea erabaki da, une horietan hurrek parekoekin erlazionatzeko aukera gehiago dauzkatelako. Gauza jakina da haurrak ez direla soilik jolas librean elkarrekin erlazionatzen, otorduetan eta abar ere harremanak gertatzen direlako; hala ere, oso zaila litzatekenez hainbeste ordu grabatzea eta guzti horren analisia egitea, aproposena jolas librean soilik aztertzea dela erabaki da. Grabaketak egiteko, hasieran gelako plano osoa hartzen saiatu da, eta kontaktu sozial baten lekuko izatean, kamera haur horiengana hurbildu da.

Haurrak adinaren arabera bi gela ezberdinetan sailkatuta daude; alde batetik 0-1 urteko haurrak daude, hezitzaile batekin, eta bestetik 1-2 urteko haurrak, bi hezitzaileekin. Nahiz eta gehienetan gela bakoitzeko grabaketak bananduta egin diren, une batzuetan, haur guztiak elkarrekin egon dira eta kasu horietan adin tarte osoko haurrak elkarrekin grabatu dira. Ondorioz, une horietan, bi geletako haurren arteko harremanak behatzeko aukera ere egon da. Hasierako helburua 0-1 urteko eta 1-2 urteko haurren arteko kontaktu sozialak aztertzea zenez, bi geletan egin ziren grabaketak. Hala ere, behin grabaketa guztiak ikusi eta gero, informazio gehiegi zegoela ikusita, gela bakar baten azterketa egitea erabaki zen, hain zuzen ere, 1-2 urteko haurren artean ematen zirenez harreman gehien, talde hori aztertu da.



## **2.2. Behaketa irizpideak**

Grabaketak behin eta berriro ikustean, errepikatzen diren zenbait jarrera eta jarduera aurkitu dira haurren arteko kontaktu sozialekin eta aurretik landutako teoriarekin harreman zuzena dutenak. Hori dela eta, hurrengo behaketa irizpideak zehaztu dira unitate bakoitzaren analisia egiterako orduan, eta irizpide bakoitzari seinu bat esleitu zaio datuak erregistratzerako orduan lana errazteko:

### 1. Objektua:

Objektuari dagokionez nagusiki bi alderdi aztertu dira. Alde batetik objektuaren presentzia, hau da, objektua baldin badago (O+), ez badago (O-) eta objektuak harremanean parte hartzen badu (OO). Azkeneko irizpidea aztertzea halabeharrezkoa izan da haurrek objektuaren bat eskuetan izateak ez duelako esan nahi objektuak kontaktu sozial horretan parte hartzen duenik. Bestetik, objektu eta jostailu erabilienak ere zehatu dira eta hurrengo hauek dira bakoitzaren seinuak: Pilotak (PI), poteak (PO), koilarak (KO), koilara eta potea (KP), blokeak (BL), koltxoneta (KL), maleta (MA), kutxa handia (KU), manta (MT) material nahasia (NA) edo bestelako materialak (BE).

### 2. Kontakua:

Kontaktu fisikoa badago, hau da, nahita zein nahi gabe batak bestearen gorputza ukitzen duenean, (K+) eta ez badago (K-). Harremana kontaktu fisikoan soilik oinarritzen bada (KK).

### 3. Ahozko komunikazioa:

Haurrek ahoz hitzak edo soinuak besteari esaten badizkiote (H+), bestela (H-)

### 4. Begirada:

Haurrek elkarren artean begirada mantentzen badute (B+) eta ez baldin badute elkar begiratzen (B-). Harremana begiradan soilik oinarritzen bada (BB)

### 5. Gatazka:

Gatazkaren bat egotekotan, gatazka horren zergatia zehazteko: objektua (GO), lekua (GL), agintea (GA), pertsonala (GP) edo ez denean zergatia ezagutzen (GX). Hezitzaileak parte hartzen badu konpontzeko (G+) eta haurrek bakarrik konpontzen badute (G-).

## 6. Errepikatzen diren jarduerak:

Behin baino gehiagotan errepikatzen diren zenbait jarduera ikusi dira grabaketak behatzean, hain zuzen ere, hurrengo hauek izan dira: Kontaktua begiekin, irribarrearekin edo soinuaren bidez (Ja1), maitasun adierazpenak (besarkadak, musuak...) (Ja2), kontaktu fisikoa (Ja3), objektu berdin baten hartzea edo manipulazioa (Ja4), objektu baten eskaintza-oparia (Ja5), imitazioa (Ja6) eta ahozko komunikazioa (Ja7)

## 7. Jolas sozial motak

Jolas motei dagokionez, teorian landutako jolas sozialak ezberdinu dira: behatzailea (JB), jolas paraleloa (JP), jolas asoziatiboa (JA), jolas kooperatiboa (JK) edo jolas sinbolikoa (JS) Bi jolas edo gehiago nahasten badira + ikurra jarriko da hizkien artean.

### 2.3. Erregistroa eta analisisa


Lehenengo eta behin, saio bakoitza grabaketa unitatetan banatu da erregistroa era erraz batean burutu ahal izateko. Gorago adierazitako behaketa irizpideez baliatuz, unitatez unitate erregistroa burutzen joan da. Erregistratzen joan ahala saio bakoitzean eman diren kontaktu sozialak lau multzo ezberdinetan sailkatu dira haur kopuruaren arabera: bi haur, hiruk ala hiruk baino gehiagok parte hartzen duten edo nahasketa ematen denean, hau da, jolasean zehar hasierako haur kopurua aldatzen doanean. Informazio guzti hori antolatuta izateko eta sailkatzeko taula bat sortu da (2. ERANSKINA). Ikus daitekenez, 3. taulan soilik lehenengo bost saioen erregistroa agertzen da, baina eranskinetan saio guztien erregistroa aurki daiteke bere osotasunean.

### 3. Taula: Saio bakoitzean suertatutako kontaktu sozial bakoitzaren erregistroa

TALDEKATZEAK	1. SAIOA (2016-1-12)	2. SAIOA (2016-1-13)	3. SAIOA (2016-1-15)	4. SAIOA (2016-1-18)	5. SAIOA (2016-1-19)
2 UME	3. 0.32 → OO, NA / K / H+ / B+ / GO, G+	2. 0.22 → OO, KP / K+ / B+ / Ja5 / JS	3. 2.37 → OO, MA / K / H / B- / Ja4, JP	2. 1.02 → OO, BE / K / H- / B+ / Ja1, JB	1. 0.30 → OO, KU / K+ / H- / B+ / Ja3, Ja4, JA
	4. 0.34 → O-, NA / K+ / H- / BB / Ja1	4. 0.51 → O-, KP / K+ / B+ / GI, G- / Ja7	4. 3.30 → OO, BL / K+ / H+ / B+ / GO, G+ / Ja5, JA	3. 0.43 → OO, BE / K+ / H- / B- / Ja4+Ja7, JK	2. 0.33 → OO, KU / K+ / H+ / B+ / GO, G- / Ja3
	5. 0.37 → OO, PI / K- / H+ / B+ / Ja4, Ja7 / JA	6. 0.25 → OO, PO / K+ / B+ / GO, G- / Ja4	5. 0.41 → OO, BL / K- / H+ / B+ / Ja4, JA	5. 1.14 → OO, NA / K- / H+ / B+ / Ja5	3. 0.14 → O- / K+ / H+ / B+ / Ja3
	6. 1.01 → O- / K+ / H+ / B+ / GX, G- / Ja7	8. 3.41 → OO, BL / K+ / B+ / GO, G- / Ja4, Ja5, JA	8. 0.49 → O-, BL / K+ / H+ / B+ / GI, G- / Ja7	9. 0.15 → OO, KP / K+ / H- / B+ / Ja4	4. 1.14 → OO, NA / K- / H+ / B+ / Ja7
	7. 0.42 → OO, BE / K+ / H+ / B+ / GO, G- / Ja4	9. 3.29 → OO, BL / K / B+ / Ja5, JA+B	9. 1.21 → OO, BL / K- / H+ / B- / JP	10. 0.35 → O-, PI / K+ / H- / B+ / Ja3, Ja7	5. 1.04 → OO, KU / K+ / H+ / B+ / GO, G+ / Ja4+Ja5
	8. 0.14 → O- / K+ / H+ / BB / Ja1	10. 0.55 → O- / K+ / BB / Ja1	11. 0.42 → OO, PI / K- / H+ / B+ / Ja1+Ja6 / JA		
		11. 0.45 → OO, KL / K+ / B+ / GI, G+ / Ja4	12. 0.08 → O- / K+ / H- / B+ / Ja3		
	3 UME		1. 3.44 → O-, KP / K- / B+ / Ja6 / JB+JP	1. 1.59 → OO, BL / K- / H+ / B+ / Ja6, Ja7	1. 0.19 → O- / KK / H- / B+ / Ja3
3 UME +	1. 1.56 → OO, NA / K / H- / B- / Ja4, Ja5, JB+JP	7. 2.48 → OO, BL / K- / B- / Ja4, JP	2. 1.00 → O- / K- / H+ / B- / Ja6	7. 0.35 → O-, NA / K / H+ / B+ / Ja3+Ja6	6. 1.17 → OO, NA / K+ / H+ / B+ / Ja4
			10. 2.31 → O+, PI / K- / H+ / B+ / Ja6	8. 2.41 → O- / KK / H- / B+ / Ja1, Ja3+Ja6	8. 0.46 → O- / K+ / H+ / B+ / Ja1
NAHASIAK	2. 1.45 → OO, PO / K- / H- / B+ / Ja4, Ja7 / JA	3. 8.52 → OO, KP / K+ / B+ / Ja4 / JS	6. 1.47 → O- / K- / H+ / B+ / Ja6, JA	4. 0.24 → O-, NA / K+ / H+ / B+ / Ja3	
	9. 1.12 → OO, NA / K+ / H+ / B+ / Ja4 / JP	5. 8.15 → O-, NA / K+ / B+ / GO, G+ / Ja4, JP+K+S	7. 1.21 → O-, BE / K+ / H+ / B+ / GI, G- / Ja7, JK	6. 0.22 → O-, NA / KK / H+ / B+ / Ja3+Ja6	


### 2.3. Emaitzak

Aurreko tauletan lortutako datuak aztertzeko, taldeka behatutako irizpideak zenbat aldiz errepikatu diren zenbatu da, azkenik bakoitzaren pertzentilak ateraz. Horrela, taula bat sortu da lortutako emaitza guztiak batzen dituen (3. ERANSKINA). Hala ere, emaitzak era argi eta ulergarrienean adierazteko, behatutako irizpide bakoitza grafiko batetan laburbildu da.



Behatutako 102 egoerak taldekatze ezberdinen arabera sailkatu dira eta harreman gehienak bikoteka izan direla ikusi da, 66 egoera hain zuzen ere. Lehenengo grafikoan ikusten den bezala hiru haur edo gehiago gutxiagotan elkartu dira (7 eta 11 aldiz), batez ere, horrelako taldekatzeak ez direlako finkoak izan, hau da, nahasketak gertatu dira (18 aldiz).

1. Grafikoa: Taldekatze bakoitzaren kopurua



2. Grafikoa: Objektuen erabilpena harremanetan

Behatutako lehenengo aztergaia, haur txikien arteko erlazioetan objektuak nola erabiltzen diren eta zeintzuk diren horietatik erabilienak izan da. Emaitzak ateratzean, objektuek kontaktu sozialetan presentzia handia dutela ikusi da, nahiz eta objektu horiek ez duten harremanean beti parte hartzen. Talde guztien emaitzak batzean ikusi da nola erlazio gehienetan, %64an hain zuzen ere, haurrek objektu edo jostailuak erabili dituztela


(bai jolasen bat aurrera eramateko, beste bati objektua eskaini edo oparitzeko, objektu bera elkarrekin manipulatzeko eta abar). Bestetik, erlazioen %16an, nahiz eta hurrek objekturen bat izan duten eskuetan, objektuak ez du harremanean parte hartu, hots, hurrek eskuetan zerbait izan dute baina erlazioa ez da horretan oinarritu, baizik eta kontaktu fisikoan, ahozko komunikazioan edo begiradan. Orokorrean, umeez beti izan dute objekturen bat eskuetan baina harremanen %20an ez da objekturik egon.

Bigarren grafikoan ikusten den bezala, bi hurren arteko topaketetan, alde handia dago objektuak egon eta egon ez diren harremanen artean, aldiz, taldea handiagoa denean eta hiru haur baino gehiago elkartzen direnean, hiru aldagaiak nahiko parekatuta daude.

Objektu motari dagokionez, jostailu zehatz batzuk zenbat aldiz erabili diren behatu da, baina ez da ezberdintasun handirik ikusi, jolas gehienak era berdintsuan erabiltzen direlako, eta ez da ikusi objektu batek hurren arteko harremanak besteak baino gehiago bideratzen dituenik.


Aztertutako hurrengo aldagaiak, kontaktu fisikoa, ahozko komunikazioa eta begirada izan dira. Ahozko komunikazioan soilik ematen den edo ez behatu da, baina begiradan eta kontaktuan, aldiz, horrez gain, harremanak soilik begiradan edo kontaktu fisikoan zenbatetan oinarritzen diren behatu da.

Taldeko datu guztiak gehitzean ikusi da harremanen %60an egon dela kontaktu fisikoa, batzuetan nahita eta besteetan zoriz, eta %28an ez da inolako kontakturik egon partaideen artean. Gutxitan oinarritu da harremana soilik kontaktu fisikoan, %12an hain zuzen ere, baina aipatzekoa da nola kasu horietan hurrek ez duten objekturik izan eskuetan, edo izatekotan, ez duten erabili. Baten soilik ikusi da harremana kontaktu fisikoan soilik oinarritu dela eta hurrek objekturen bat erabili dutela.




3. Grafikoa: Kontaktu fisikoaren pertzentilak harremanetan

Laugarren grafikoa behatzean, argi ikusten da harreman gehienetan ahozko komunikazioa nagusitzen dela. Talde osoko datuak gehitzean, erlazioen %74an ahozko komunikazioa dago eta %26an ez. Jakin badakigu 1-2 urte tarteko haur guztiek ez dutela hitz egiten, ondorioz, hitz solteak eta soinu bokalak kontuan hartu dira ahozko komunikazioaren azterketa egitean.




4. Grafikoa: Ahozko komunikazioaren pertzentilak

Kontaktu fisikoarekin bezala, begirada aztertzean, ez da bakarrik behatu ea haurrek elkarri begiratzen dioten edo ez, baizik eta ea harremanen bat partaideen arteko begiradan soilik oinarritu den. Orokorrean, bostgarren grafikoa ikusten den bezala, taldekatze guztietan nagusitzen dena begirada egotea da. Harreman gehienetan (%80), haurrek elkarri begiratu diote behintzat behin, baina aipatzekoa da, begirada ez dutela denbora luzez mantentzen eta gutxitan gurutzatzen direla bi partaideen begiradak. Normalean, begirada bestearen eskuetara edo objektura bideratzen dute haurrek, batez ere, bestea objektu bat manipulatzeko dagoenean. Kontaktu fisikoan oinarritu diren harreman gutxi egon dira (%12) baina begiradan soilik oinarritzen direnak are gutxiago (%6).




5. Grafikoa: Haurren arteko begiradaren pertzentilak harremanetan

Gauza jakina da gatazkak sozializazioaren alde garrantzitsua direla, ondorioz, gatazka kopurua eta horien sorburua behatu da. Aztertutako 102 egoeretan 19 gatazka suertatu dira, 12 objektu batengatik eta 6 lekuagatik. kasu bakar batetan ezin izan da gatazkaren arrazoa ezagutu. Taldekatzea kontuan hartzen badugu, gatazka gehienak 2 haur elkarrekin egon direnean gertatu dira, 19 gatazketatik 15 hain zuzen ere; hala ere, arestian aipatu dugun bezala, kontuan hartu behar da harreman gehienak bikoteka eman direla. Zazpigarren grafikoan ikusten den bezala, haurrek beraien kabuz konpondu dituzte gatazken %42a eta hezitzaileek esku hartu behar izan dute %58an (beharrezkoa ikusi dutelako edo indarkeriazko egoerak gertatu direlako).




6. Grafikoa: Gatazken sorburua



7. Grafikoa: Hezitzailearen esku-hartzea gatazketan

Grabaketak behin eta berriro behatzean, zenbait jarduera errepikatzen direla ikusi da, ondorioz, jarduera zehatz horien maiztasuna zenbatu da. Hain zuzen, Vinczek (1971)




8. Grafikoa: Errepikatzen diren jardueren maiztasuna

egindako ikerketa batetan, haur txikien arteko kontaktu sozialak aztertu zituen eta ikerketa honetan aztertu diren jarduera batzuk ere aztertu zituen. Zortzigarren grafikoan, talde osoan jarduera bakoitzaren maiztasuna zehazten da.

Nagusitzen den jarduera kontaktu fisikoa da, behatutako 102 egoeretatik 36 aldiz ikusi da haurrak nahita elkarri ukitzen. Horren ostean, nagusitzen dena objektu berdina bat hartzea eta horrekin jolasten edo manipulatzeko egotea da, hain zuzen, 31 aldiz. Horien atzetik, kopuru nahiko parekatuan, imitazioa (24), ahozko komunikazioa (20) eta objektu baten eskaintza-oparia (18) daude. Gutxien ikusi den jarduera begiradarekin, irribarrearekin edo soinuarekin harremanetan jartzea izan da, bakarrik 14 kasu ikusi direla.

Behatutako azken alderdia jolas sozial motak izan dira, hain zuzen, jolas bakoitza zenbatetan errepikatzen den zenbatu da. Gehien ikusi dena jolas asoziatiboa izan da, 15 aldiz. Kopuruari dagokionez, jolas asoziatiboari jarraitzen diona jolas behatzailea izan da 13 kasurekin eta jolas paraleloaren 10 kasu behatu dira. Bederatzigarren grafikoan ikusten den bezala, bi jolas era berdintsuan ikusi dira, hain zuzen, jolas sinbolikoa eta kooperatiboa, zeintzuk 7 aldiz ikusi dira hurrenez hurren.



9. Grafikoa: Jolas sozial mota bakoitzaren kopurua talde osoan

## 2.4. Ondorioak

Aldez aurretik aipatutako helburuak eta hipotesiak kontuan izanik eta grabaketak aztertzean ateratako emaitzetan oinarrituta, zenbait ondorio atera dira ikerketa lan honetan.

Ezarrিতako lehenengo helburuari erreparatuz, 1-2 urteko haurren arteko kontaktu sozialak behatzean, non 16-24 hilabete tarteko haurrak behatu diren, ezberdintasun nabariak aurkitu dira adin ezberdineko haurren harremanetan. Txikienak sarritan behatzailearen papera hartzen dute jolasean parte hartu gabe, eta nagusienak, aldiz, orokorrean jarrera aktiboagoa hartzen dute harremanetan.

Bigarren helburuari dagokionez, gatazken kopuruaren analisia eginez gero, ikusi da aztertutako harreman sozialen %19an baino ez direla gatazkak suertatu. Ondorioz, esan daiteke adin tarte honetan harreman sozialek plazer gehiago sortarazten dutela ondoeza baino, irribarre eta plazer seinale gehiago behatu direlako negarrak edo haserreak baino. Herránek (2014) dioten bezala, oso deigarria da Łóczyn dagoen gatazka kopuru urria. Haurrek lau eta zortzi hilabete dituztenean, plazer handia sentitzen dute elkar behatzen, ukitzen, xurgatzen... eta elkarren “jostailu” atseginak dira. Zortzi hilabetetik aurrera, haurrek elkar oztopatzen dute batzuetan, ondorioz, hein batean plazerra murrizten da. Bigarren urtean zehar, gatazka gehiago ematen dira, normalean objektuak direla eta hiru urterekin harreman esanguratsuak eta lehentasunezkoak ikusten dira. Hori dela eta, adinaren arabera ezberdintasunak ere ikusi dira gatazketan, nagusiak gatazkatsuenak izanik.

Gatazken ildotik jarraituz, hipotesietan espero zen bezala, gehienak objektuengatik izan dira, bi haurrek objektu berdina nahi dutelako, edota batek besteari eskuetan duen objektua kentzen diolako. Beraz, behaketa honetan Tardósek (2014) azaltzen duena ikusi da, hau da, umeak elkarri sarritan kentzen dizkiotela objektuak eskuetatik, adin txikiko haurrek objekturen bat nahi dutenean ez direlako itxaroteko gai eta bere nahiei uko egitea kostatzen zaielako.

Alde batetik, horren arrazoia materialaren eta espazioaren antolaketa izan da, hasierako hipotesiekin bat eginez. Noiz edo noiz jostailu edo objektu gehiegi ikusi dira lurrean botata, eta oso gutxitan ikusi dira hezitzaileak objektu horiek berriro ordenatzen edo antolatzen. Ondorioz, haurrek objektu horiek manipulatzeko eta horiekin jolasteko interesa galtzen dute, sarritan objektuak era desegokian erabiliz. Bestalde, materialaren



kopuruak ere eragina izan du gatazketan, haur batek jostailu bat nahi izan duenean eta begi bistan izan duen bakarra lagun baten eskuetan egon denean, eskutik kentzen saiatu da, gatazkaren bat sortuz. Gainera, adin horretako haurrei asko gustatzen zaie objektuekin serieak egitea. Kasu horietan, gerta daiteke haur batek mota bereko jostailu guztiak hartzea eta ondorioz, beste haur batek horrelako bat nahi izatean lehenengo haurrari kentzea. Ondorioz, gatazkak suertatzen dira, beraz, komenigarriena mota bereko objektu objektu izatea lirateke. Hala ere, aipatzekoa da, gatazkak gertatu direnean bi haurrek objektu berdina nahi izateagatik, sarritan, nahiz eta hezitzaileak haurrari adierazi non aurki dezaken antzeko edo objektu berdina bat, ez da nahikoa izan gatazka konpontzeko. Horrelako egoeretan ondoriozta dezakegu objektuek eragindako gatazkak ezin direla beti konpondu mota berdineko jostailu gehiago eskainiz, arestian aipatu bezala, haurtxoei haien nahiei uko egitea kostatzen zaielako eta askotan ez dute amore ematen nahiz eta jakin antzeko beste objektu bat eskuragarri dutela.

Batzuetan, haurrek beren interesa asetzeko jostailu nahikoa izan arren, jolasean gertatzen da (batez ere multzoak egiteko fasean) haurrek elkarri kentzen dizkietela gauzak. Normalean, haurretako bat pozik agertzen da topatzen duenarekin, hots, kendu diotena ordezkatzeko topatzen duen jostailuarekin. Hala eta guztiz ere, gerta liteke asko maitatzea jostailu partikular hori, hainbestera non haserretu egiten den kentzen badiote, edo, alderantziz, baliteke zerbait lortzeko ezintasuna bere hutsegite bezala sentitzea (Kálló eta Balog, 2013).

Goian aipatu da espazioaren eta materialaren antolaketak eragina izan duela gatazketan, baina ez soilik gatazketan, harremanetan ere eragina izan duela behatu da. Jostailu berri asko edo deigarriegiak eskaintzean, ikusi da nola haurrek atentzioa objektuei baino ez dietela eskaini, parekoen arteko harremanak alde batera geratu direlarik. Horrez gain, harremanetan eragina izan duen beste aldagai bat hezitzailearen jarrera izan da. Alde batetik, hezitzaileak jarduera gidatzen duenean, esaterako, korroan jartzen denean guztiekin abestera, haurrek arreta soilik hezitzailearengan jartzen dute eta ondorioz, egoera horietan ia ez da haurren arteko kontaktu sozialik ematen. Bestetik, zenbait egoera behatu dira non haurrak elkarrekin jolasten zeudela eta hezitzaileak harreman hori oztopatu duen, bai haur baten pixoihala begiratzera joan delako, edo jostailuak batzeko eskatu dielako elkarrekin jolasten zeuden bi haur horiei. Garrantzitsua da haurren jolasa errespetatzea, horregatik, saiatu behar gara haurren harreman eta jolasak ez oztopatzen. Gainera, Tardósek (2014) dion bezala, haurrak ez dira batzen behartu behar eta are gutxiago haurren jolasa oztopatu, jolasean jarraitu baino lehen erabiliko ez dituzten jostailuak batzeko eskatuz.

Hirugarren helburuari dagokionez, jolas sozial mota ezberdinak behatzeko aukera egon da. Gainera adinaren arabera, ikusi da nola jolas sozial horiek ez diren era berdintsuan ematen, haurren garapenak horretan eragina duelako. Haurrak gero eta nagusiagoak izan, orduan eta jolas konplexuagoak aurrera eramaten dituzte. Fernández Moyaren (2014) 1. taula kontuan hartuz, 0-2 tarteko haurrek bakarkako eta jolas behatzailea soilik egiten dute. Ikerketa lan honetan, non 1-2 tarteko haurrak behatu diren, beste jolas guztiak behatu dira (bakarkakoa, behatzailea, paraleloa, asoziatiboa eta kooperatiboa). Horren arrazoia haurren eskolatzeko goiztiarra izan daiteke, txiki-txikiak direnetik denbora asko igarotzen dutelako beraien adineko beste haur batzuekin. Beraz, haurrak ohituago daude parekoekin jolastera eta harremanak izatera, ondorioz, jolas mota ezberdin gehiago ematen dira haurrak etxean eta beste hurrekin kontakturik gabe hezitzen direnean baino.

## **2.5. Lanaren mugak eta etorkizunari begira lantzeko aukerak**

Lan honekin sozializazio-prozesuaren inguruan aspektu ugari ikasi ditudan arren, azpimarratzekoa da zailtasun eta muga askorekin aurkitu naizela bidean. Hasteko, gaiaren aukeraketan zalantza dezente izan nituen, nahiz eta hasieratik argi izan Pikler-Lóczy ereduan oinarritu nahi nuela. Gradu osoan zehar lehen haurtzaroaren inguruan eskainitako informazio urria dela eta, erabaki nuen hezkuntza eredu horretan oinarritutako gai bat landu nahi nuela. Gainera, lan praktikoa eta behaketak egiteak, aukera eman dit Lóczy pedagogia abiapuntutzat hartzen duen Haurreskola bat bisitatzeko. Sozializazio-prozesuaz gain, bisita horiekin beste hainbat alorren inguruan ikasteko aukera izan dut, hala nola, pixoihal aldaketak, otorduen garrantzia eta abar.

Nahiz eta behaketekin asko ikasi dudan, tankerako ikerketa lan bat egiten dudan lehen aldia izanik, grabaketak egiterako orduan zailtasun asko izan nituen ez nekielako zer eta nola grabatu behar nuen. Sarritan bi haurren arteko harremana grabatzen nengoela, beste talde bat hasten zen elkarrekin erlazionatzen kameraren objektibotik kanpo; ondorioz, egoera horien aurrean muga ugari izan nituen, bi kontaktu sozialak batera ezin nituelako grabatu eta bien artean aukeratzea eragiten zuelako horrek. Bestetik, lagina hartzerako orduan izan dudan beste oztopo handi bat nire jarrera izan da, nahi gabe gatazka askoren aurrean esku-hartu dudalako, esku-hartu behar ez nuen egoera askotan. Ondorioz, nahiz eta hasieran lanaren helburu bat izan gatazken aurrean hezitzaileen esku-hartzea behatzea

eta hurrek gatazkak autonomoki konpontzeko gai diren aztertzea, alde batera utzi behar izan dut.

Lanarekin aurrera jarraitzean, beste hainbat helburu alde batera utzi behar izan ditut. Garrantzitsuena, edo niri alde batera uztea gehien kostatu zaidana, 1-2 adin tartearen azterketa soilik egitea izan da. Hasiera batean, nire helburua 0-1 eta 1-2 urteko haurrak aztertzea zen, hori dela eta, bi gelen grabaketak egin nituen. Hala ere, ikusita adin tarte bakar bateko azterketa egitea zekarren lan itzela, erabaki behar izan nuen haur txikitxoek grabaketak alde batera uztea. Oso deigarriak egin zitzaizkidan 0-1 urtekoen arteko kontaktu sozialak, batez ere begiradan eta kontaktu fisikoan oinarritzen zirelako eta nagusiagoekin alderatuz oso ezberdinak zirela ikusteko aukera izan nuen. Hala ere, adin tarte bat aukeratzeko beharra izan nuenez, 1-2 urteko haurrak aukeratzea erabaki nuen bertan hamaika haur zeudelako, eta txikitxoek gelan, aldiz, soilik bost. Arrazoi horregatik eta 1-2 urtekoek jada ibiltzen dakitelako, kontaktu sozial gehiago eman ziren nagusien gelan.

Honegatik guztiagatik, nahiz eta zailtasun eta muga asko aurkitu ditudan bidean, azpimarratzekoa da gustura eta gogotsu aritu naizela lan honetan eta uste dut aspektu garrantzitsua dela hori lan bat egiterako orduan. Gauzak gogoz, interesarekin eta motibatuta egiten direnean, argi dago askoz gehiago ikasten dela inposatutako gai baten ikerketa lana egitean baino.

### 3. Erreferentziak

- Berbert, M. eta Truffaut, F. (1969). *L'Enfant sauvage*. France: Les Films du Carrosse.
- Berger, P. L., Luckmann, T., & Zuleta, S. (1968). *La construcción social de la realidad*. Buenos Aires: Amorrortu.
- Fernández Moya, M. (2014). *Crecer jugando*. Jaén: Universidad de Jaén
- Herrán, E. (2014). Pikler-Lóczy Eredua: *zaintzea denean hezkuntzaren abiapuntua*. *Tantak*, 26 (2).
- Kálló, É., eta Balog, G. (2013). *Los orígenes del juego libre*. Budapest: Magyarországi Pikler-Lóczy Társaság.
- Pugmire-Stoy, M. C. (1996). *El juego espontáneo: vehículo de aprendizaje y comunicación*. Madrid: Narcea.
- Tardos, A. eta Vasseur-Paumelle A. (1991). Règles et limites en crèche: acquisitions des attitudes sociales. *Journal de pédiatrie et de puériculture*, 7, 409-415.
- Tardos, A. (2010). *El proceso de socialización*. Manuscrito no publicado. Taller Pikler para profesionales. Asociación Pikler-Lóczy de Hungría/Fundación Lóczy por los niños. Budapest. Hungría.
- Tardos, A. (2014). *El adulto y el juego del niño*. Barcelona: Octaedro
- Urkijo, H. *Urte biko gelako gatazkak: izaera eta esku-hartzea*. [On line] ADDI: Repositorio Institucional de la Universidad del País Vasco. DOCENCIA. E.U. Magisterio de Bilbao. Trabajos Académicos-E.U. Magisterio-Bilbao (2015) [Begiratuta: 20-03-2015].Eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10810/17684>
- Vincze, M. (1971). *Les contacts sociaux des bébés et des jeunes enfants élèves ensemble*. N°70. Paris: Associaton Pikler-Lóczy-France
- Wallon, H. (1979). *Los orígenes del carácter en el niño: los preludios del sentimiento de personalidad*. Buenos Aires: Ediciones Nueva Visión.
- Wallon, H. (1985). *La vida mental*. Bartzelona:Crítica.
- Wallon, H. (1980). *Psicología y educación del niño: una comprensión dialéctica del desarrollo y la educación infantil*. Madril: Pablo del Río.

## ERANSKINAK

### I. ERANSKINA

1. Taula: Grabaketei buruzko datuak

EGUNA	GRABATUTAKOA	BALIO IZANIKOA	BEHAKETA UNITATEAK
2016-01-12	53:51	8:35	9
2016-01-13	1:20:18	34:30	11
2016-01-15	1:27:20	18:10	12
2016-01-18	2:46:42	8:52	10
2016-01-19	2:09:48	9:35	8
2016-01-22	2:22:25	16:45	13
2016-01-25	2:16:36	25:16	11
2016-01-26	1:55:14	12:14	9
2016-01-27	1:05:15	14:45	10
2016-01-29	1:33:18	8:08	9
<b>GUZTIRA</b>	<b>17:32:47</b>	<b>2:36:50</b>	<b>102</b>

## II. ERANSKINA

2. Taula: Saio bakoitzeko datuen erregistroa taldekatzearen arabera

TALDEKATZEAK	1. SAIOA (2016-1-12)	2. SAIOA (2016-1-13)	3. SAIOA (2016-1-15)	4. SAIOA (2016-1-18)	5. SAIOA (2016-1-19)
2 UME	3. 0:32 → OO, NA / K- / H+ / B+ GO, G+	2. 0:22 → OO, KP / K+ / B+ Ja5 / JS	3. 2:37 → OO, NA / K- / H- / B- / Ja4, JP	2. 1:02 → OO, BE / K- / H- / B+ Ja1, JB	1. 0:30 → OO, KU / K+ / H- / B+ / Ja3, Ja4, JA
	4. 0:34 → O+, NA / K+ / H- / BB Ja1	4. 0:51 → O+, KP / K+ / B+ GL, G- / Ja7	4. 3:30 → OO, BL / K+ / H+ / B+ GO, G+ / Ja5, JA	3. 0:45 → OO, BE / K+ / H- / B- / Ja4+Ja7, JK	2. 0:53 → OO, KU / K+ / H+ / B+ GO, G- / Ja3
	5. 0:37 → OO, PI / K- / H+ / B+ Ja4, Ja7 / JA	6. 0:25 → OO, PO / K+ / B+ GO, G- / Ja4	5. 0:41 → OO, BL / K- / H+ / B+ / Ja4, JA	5. 1:34 → OO, NA / K- / H+ / B+ / Ja5	3. 0:14 → O- / K+ / H+ / B+ / Ja3
	6. 1:01 → O- / K+ / H+ / B+ GX, G- / Ja7	8. 3:43 → OO, BL / K+ / B+ GO, G- / Ja4, Ja5, JA	8. 0:49 → O+, BL / K+ / H+ / B+ GL, G- / Ja7	9. 0:15 → OO, KP / K+ / H- / B+ / Ja4	4. 1:14 → OO, NA / K- / H+ / B+ / Ja7
	7. 0:47 → OO, BE / K+ / H+ / B+ GO, G- / Ja4	9. 3:29 → OO, BL / K- / B+ Ja5, JA+B	9. 1:21 → OO, BL / K- / H+ / B- JP	10. 0:35 → O+, PI / K+ / H+ / B+ / Ja3, Ja7	5. 1:04 → OO, KU / K+ / H+ / B+ GO, G+ / Ja4+Ja5
	8. 0:14 → O- / K+ / H+ / BB Ja1	10. 0:55 → O- / K+ / BB Ja1	11. 0:42 → OO, PI / K- / H+ / B+ Ja1+Ja6 / JA		
		11. 0:45 → OO, KL / K+ / B+ GL, G+ / Ja4	12. 0:09 → O- / K+ / H- / B+ / Ja3		
		1. 3:44 → O+, KP / K- / B+ Ja6 / JB+JP	1. 1:59 → OO, BL / K- / H+ / B+ / Ja6, Ja7	1. 0:19 → O- / KK / H- / B+ / Ja3	7. 3:07 → O+, KL / KK / H+ / B+ / Ja1, Ja3, Ja6, Ja7
		7. 2:48 → OO, BL / K- / B- Ja4, JP	2. 1:00 → O- / K- / H+ / B- / Ja6	7. 0:55 → O+, NA / K- / H+ / B+ / Ja3+Ja6	6. 1:47 → OO, NA / K+ / H+ / B+ / Ja4
		2. 1:45 → OO, PO / K- / H- / B+ Ja4, Ja7 / JA	10. 2:33 → O+, PI / K- / H+ / B+ / Ja6	8. 2:41 → O- / KK / H- / B+ / Ja1, Ja3+Ja6	8. 0:46 → O- / K+ / H+ / B+ / Ja1
	NAHASIAK	2. 1:45 → OO, PO / K- / H- / B+ Ja4, Ja7 / JA	3. 8:52 → OO, KP / K+ / B+ Ja4 / JS	6. 1:47 → O- / K- / H+ / B+ / Ja6, JA	4. 0:24 → O+, NA / K+ / H+ / B+ / Ja3
9. 1:12 → OO, NA / K+ / H+ / B+ Ja4 / JP		5. 8:35 → O+, NA / K+ / B+ GO, G+ / Ja4, JP+K+S	7. 1:21 → O+, BE / K+ / H+ / B+ GL, G+ / Ja7, JK	6. 0:22 → O+, NA / KK / H+ / B+ / Ja3+Ja6	

1-2 URTEKO HAURRAK	6. SAIOA (2016-1-22)	7. SAIOA (2016-1-25)	8. SAIOA (2016-1-26)	9. SAIOA (2016-1-27)	10. SAIOA (2016-1-29)	
<b>2 UME</b>	1. 0:24 → O- / KK / H- / B- / Ja3	2. 0:45 → OO, NA / K+ / H+ / B+ / Ja3, Ja5	1. 2:07 → OO, KP / K+ / H+ / B+ / Ja5, JS	1. 0:33 → OO, KU / K+ / H+ / B+ / Ja3, JB	4. 0:27 → OO, BE / K- / H- / B+ / Ja6, JB	
	2. 0:40 → OO, NA / K- / H- / B- / Ja4, JA	5. 1:46 → OO, KL / K+ / H+ / B+ / Ja3, Ja6, JA	2. 1:33 → OO, MT / K+ / H+ / B- / GO, G+ / Ja4, Ja7	2. 3:37 → OO, KL / K+ / H+ / B+ / Ja3, Ja6, Ja7	5. 0:24 → OO, BE / K+ / H+ / B+ / Ja3, JB	
	3. 0:35 → O+, KO / K+ / H+ / B- / Ja7	7. 2:48 → OO, PO / K+ / H+ / B+ / GO, G+ / Ja4, Ja5, JK	3. 0:45 → OO, MT / K- / H+ / B- / Ja4, JP	3. 0:52 → OO, BE / K+ / H+ / B- / Ja4, Ja7	7. 0:55 → OO, BE / K- / H- / B+ / JP	
	4. 0:43 → O- / K- / H- / BB / Ja1	8. 1:04 → OO, BE / K+ / H+ / B+ / JA	4. 1:53 → OO, KP / K- / H+ / B+ / Ja5, JS	4. 0:42 → O+, BE / KK / H+ / B+ / Ja3, Ja7		
	6. 1:07 → OO, MT / K+ / H+ / B+ / Ja3, Ja4	9. 2:01 → OO, PO / K+ / H+ / B+ / Ja3, Ja6, JK	6. 2:52 → OO, NA / K+ / H+ / B+ / Ja3, Ja4, Ja7	5. 0:57 → OO, KU / K+ / H+ / B+ / GL, G- / Ja3, Ja7		
	8. 0:27 → O- / K+ / H+ / B+ / Ja3	10. 1:35 → OO, PO / KK / H- / B+ / Ja5, JB+JK	7. 1:27 → OO, MT / K+ / H+ / B+ / GO, G+ / Ja4	6. 2:52 → O- / K+ / H+ / BB / Ja3, Ja1, Ja3		
	10. 2:09 → O- / KK / H+ / B+ / Ja1, Ja3		8. 0:21 → O- / KK / H+ / B+ / Ja3	7. 0:13 → O- / K- / H- / B+ / Ja3, Ja6		
	11. 0:59 → OO, KL / K+ / H- / B- / Ja3, Ja6		9. 0:31 → O- / KK / H+ / B- / Ja3	8. 0:49 → OO, BE / K+ / H- / B+ / Ja1, Ja5		
	13. 0:50 → OO, MT / K+ / H- / B+ / Ja4, Ja6			9. 2:09 → O- / KK / H+ / BB / Ja1, Ja3		
				10. 2:06 → OO, BE / K+ / H+ / B+ / Ja3, Ja5		
					3. 0:37 → O+, BE / K- / H+ / BB / Ja7	
	<b>3 UME</b>	5. 1:00 → OO, NA / K+ / H+ / B+ / Ja5				8. 0:45 → OO, NA / K+ / H+ / B+ / Ja5, Ja6, JB
	<b>3 UME +</b>		1. 0:51 → O- / KK / H+ / B+ / Ja3			1. 1:03 → O+, NA / K- / H+ / B+ / Ja6, JB
<b>NAHASIAK</b>		6. 4:49 → OO, PO / K+ / H+ / B+ / GO, G+ / Ja4, Ja5, JP+B+A				
		3. 2:51 → OO, NA / K+ / H+ / B+ / Ja3, Ja6	5. 0:45 → OO, KP / K+ / H+ / B+ / Ja5, JS		6. 1:16 → OO, BE / K+ / H+ / B+ / Ja4, JA	
		7. 4:39 → OO, MT / K+ / H+ / B+ / Ja4, JA			2. 0:45 → O+, NA / K+ / H- / B+ / Ja3, Ja6	
	9. 0:51 → OO, KO / K- / H- / B+ / Ja6	4. 3:40 → OO, KP / K+ / H+ / B+ / Ja9, JS			9. 2:00 → O- / K+ / H+ / B+ / Ja1, Ja6, Ja7	
	12. 4:21 → OO, KL / K+ / H+ / B+ / GL, G+ / Ja3	11. 3:06 → OO, PO / K+ / H- / B- / Ja4, Ja6, JB+JK				

### III. ERANSKINA

3. Taula: Behaketa irizpideen arabera lortutako emaitzak eta bakoitzaren pertzentilak

EMAITZAK (1-2 URTE)	2 UME		3 UME		3 UME +		NAHASIA		GUZTIRA		
DENBORA											
KOPURUA	66		7		11		18		102		
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	
OBJEKTUA	O+	6	% 10	3	% 43	3	% 28	5	% 28	17	% 16
	O-	14	% 21	1	% 14	4	% 36	2	% 11	21	% 20
	OO	46	% 69	3	% 43	4	% 36	11	% 61	64	% 64
OBJEKTU MOTA	PI	3	% 6	/	/	1	% 14	/	/	4	% 5
	PO	4	% 8	/	/	1	% 14	2	% 12	7	% 9
	KO	1	% 2	/	/	/	/	1	% 6	2	% 3
	KP	4	% 8	1	% 16	/	/	3	% 20	8	% 10
	BL	6	% 11	1	% 16	1	% 14	/	/	8	% 10
	KL	4	% 8	1	% 16	/	/	1	% 6	6	% 7
	KU	5	% 10	/	/	/	/	/	/	5	% 6
	MT	5	% 10	/	/	/	/	1	% 6	6	% 7
	MA	1	% 2	/	/	/	/	/	/	1	% 1
	NA	7	% 14	2	% 33	4	% 58	6	% 38	19	% 24
	BE	11	% 21	1	% 16	/	/	2	% 12	14	% 18
KONTAKTUA	K+	42	% 63	2	% 28	3	% 27	14	% 78	61	% 60
	K-	17	% 26	3	% 44	6	% 55	3	% 17	29	% 28
	KK	7	% 11	2	% 28	2	% 18	1	% 5	12	% 12
HITZAK	H+	42	% 71	5	% 83	8	% 80	12	% 75	67	% 74
	H-	17	% 29	1	% 17	2	% 20	4	% 25	24	% 26
BEGIRADA	B+	50	% 74	6	% 86	9	% 82	17	% 94	82	% 80
	B-	11	% 16	1	% 14	2	% 18	1	% 6	15	% 14
	BB	6	% 10	/	/	/	/	/	/	6	% 6
GATAZKA KOPURUA		15	% 23	/	/	1	% 9	3	% 17	19	% 18
GATAZKA ZERGATIA	GO	10	% 67	/	/	1	% 100	1	% 34	12	% 64
	GL	4	% 27	/	/	/	/	2	% 66	6	% 31
	GX	1	% 6	/	/	/	/	/	/	1	% 5
GATAZKA ESKU HARTU	G+	7	% 47	/	/	1	% 100	3	% 100	11	% 58
	G-	8	% 53	/	/	/	/	/	/	8	% 42
JARDUERA MOTA	Ja1	10		1		2		1		14	
	Ja2	/	/	/	/	/	/	/	/	/	/
	Ja3	26		2		3		5		36	
	Ja4	20				4		7		31	
	Ja5	13		2		2		1		18	
	Ja6	8		4		5		7		24	
	Ja7	14		3				3		20	
JOLAS MOTA	JB	7	% 25	2	% 67	3	% 43	1	% 7	13	% 25
	JP	4	% 14	1	% 33	3	% 43	2	% 14	10	% 20
	JA	10	% 36	/	/	1	% 14	4	% 29	15	% 29
	JK	4	% 14	/	/	/	/	3	% 21	7	% 13
	JS	3	% 11	/	/	/	/	4	% 29	7	% 13